

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Osteguna, 2011ko maiatzaaren 26a. VIII. urtea. 2.233. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info



Eneko Viñuela, Marimi Ugalde, Garbiñe Mendizabal, Pello Zendoia eta Xatur Zabala. E. MAIZ

Enplegua sustatzeko ikastaroa antolatu dute

Kanpo merkataritzaren inguruko ikastaroan izena eman nahi duenak Tolosaldea Garatzenekin jarri behar du harremanetan **02**

Pott Keramikaren 'Zipristin' lana dago ikusgai Aranburun

Ione Urainek eta Maite Salutregik Tolosako jauregiko aretoa euren lanetara egokitu dute **04**



'Zipristin' erakusketako artelana. A. MAZ

Aste Berdearekin bizimodu «zentzuduna» egitea bultzatu nahi dute

Tolosaldeko hainbat eragilek ekainaren 5ean mundu osoan ospatuko den Ingurumenaren Egunearekin bat egingo dute; eskualdeko zazpi herritan ekitaldiak antolatu dituzte **06**



TOLOSAKO
INMAKULADA
IKASTETXEA



Kondeko aldapa 5B Tolosa • 943 67 36 29
www.inmakuladatolosa.com

HEZIKETA ZIKLOAK

Goi maila		Erdi Maila
<ul style="list-style-type: none">Gizarte IntegrazioaHaur HezkuntzaOsasun DokumentazioaDiagnosi Irudia	AURREMATRIKULAK EKAINAK 1 - 10	<ul style="list-style-type: none">Erizaintza laguntzaileaFarmazia eta parafarmazia teknikariaSarbide proba

KALITATEZKO FORMAZIOA

Aska ezazu irudimena zure **DISEINATU**

ceinpro
TITULAZIO
OFIZIALAK

**ERDI ETA GOI MAILAKO HEZIKETA
ZIKLOAK DISEINU GRAFIKOAN**

Herriz Pasalekua 95 • 20008 Donostia • Gipuzkoa • 943 310 873 • www.ceinpro.es



Kanpo merkataritzako ikastaroa Tolosaldea Garatzenen egoitzan izango da. LURKIZU

Kanpo merkataritzaz gehiago jakiteko ikastaroa antolatu dute langabeentzat

Tolosako bi enplegu bulegoek Lanbideko sare berean lan egiten dute 2010. urteaz geroztik

Tosaldea Garatzeneko bulegoak antolatu du kanpo merkataritza ikastaroa

Itzea Urkizu

Bi enplegu bulego daude Tolosan gaur egun. Erakunde berrian bat egin zuten, aurreko Jaurilaritzak ireki zituen Lanbide bulegoek eta INEM Espainiako Enplegu Institutuak Euskal Autonomia Erkidegoan zituen bulegoek. Horrela beraz, Tolosan, Larramendi auzoan nahiz San Esteban auzoan enplegu bulegoen zerbitzua eskura dute Tolosako eta eskualdeko herritarrek.

Tosaldea Garatzeneko enplegu zerbitzuak hainbat eskaintza

ematen dizkie herritarrei; «zentru integrala» da. Bide honetan, bi erakundeek bateratzearen ondorioz euren lanak ez direla aldatu nabarmendu du Tolosaldea Garatzeneko Lanbide bulegoko arduradunak: «Lehen egiten genituen gauza berak egiten jarraitzen dugun».

Lanbide zerbitzuak aurrera ematen dituen ekintzen artean, honakoak azpimarra daitezke: Lanbideko curriculumetan eguneraketak egiten dituzte; lan eskaintzei eta prestakuntzei buruzko informazioa ematen dute; era-



Pasa den otsailean, Tolosaldea Garatzenek Tolosako Udalarekin enplegua sustatzeko akordioa sinatu zuen. IGARCIA

biltzaileek prestakuntza zikloetan izena ematea ahalbidetzen dute; eta erabiltzaileei lagundu egiten diete lan eskaintzetan izena ematen. Honetaz gain, bertara joaten diren langabeekin orientazioa lantzen dute, sortzen diren lan eskaintzak kudeatzearekin batera.

Enplegu zentroan, bestalde, erabiltzaileentzat irekia den eremu bat ere bada. Bertan, hiru ordenagailu, asteburuetakoa prentsa, aldizkari espezializatuak, CD-Romak eta eguneraturiko lan eskaintzen txostenak eskuragarri izaten dira, langabetuek beren gisara informazioa bila dezaten.

Hala ere, informazioa zehatzagoa nahi duenari, Lanbide zentruko arduradunek emango diote; enpleguari buruzko webguneak erakusten dituzte, eta Lanbideko web orriak nola fun-

tzionatzen duen ere irakasten diete erabiltzaileei. Eskualdeko enpresa gida ere eskuragarri izaten da, eta eskualdez kanpoko katalogoa ere bai.

Doako ikastaroen eskaintza

Lanbide bulegoko arduradunentzat, garrantzia berezia dute antolatzen dituzten formakuntza ikastaroak.

Hain zuzen ere, datorren astelehenera aurrera kanpo merkataritzari buruzko ikastaroa martxan jartzea aurreikusi dute; uztaillaren 8an amaituko da ikastaroa. 150 ordukoa izango da, eta langabetuei zuzendurikoa da. Donostiako Nazaret formakuntza zentruaren eskutik antolatu dute ikastaroa Tolosan.

Izena ematerako orduan, ikasleentzako erdiek Tolosan erroldatuta egon beharko dute, baina gaine-

rako plazak eskualdean erroldaturiko herritarrei zuzendutako izango dira.

Ordutegiari dagokionez, berriro, goizeko 09:00etatik arratsaldeko 14:00etara bitartean arituko dira. Izena eman nahi duenak, hiru bide desberdin erabili ahal izango ditu: San Esteban auzoko 20. zenbakian dagoen Tolosaldea Garatzeneko bulegora joanda, 943 65 45 01 telefonora deituta, edo lan@tolosaldea.net helbide elektronikora idatzita.

• tolosa@hitza.info

Kanpo merkataritzako ikastaroan landuko dituzten gaiak

➔ Ikastaroan, hainbat gai landuko dituzte. Haste-ko, nazioarteko bezero eta hornitzaileak bilatu eta aukeratzeko teknikak ezagutuko dituzte. Nazioarteko harreman komertzialen prestakuntza eta garpenerako komunikazio teknika egokiak erabiltzen ere ikasiko dute. Era berean, nazioarteko salerosketarako negoziazio bideak ezagutzea eta honetarako arautegiak interpretatzen jakitea ere, ikastaroko zutabe izango dira. Nazioarteko esportazio eta inportazioan burutu beharreko kontrolen nondik norakoak landuko dituzte, eta honetarako beharrezkoak diren kudaketa eta dokumentazioa ezagutzeko lanak ere bai.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Larraitz bidea eremuko etxebizitza tasatuak egiten hasteko aukera zabaldu da

Sustatzaileek eskatuta, adjudikatu gabeko etxebizitzaren prezioa igotzea onartu du azken osoko bilkuran udalak

Imanol Garcia Amezketara

Larraitzeko bidea izena duen eremuan hamabi etxebizitza tasatu egiteko proiektua martxan dago 2007tik. Sustatzaileek ezin izan dute eraikitze lanetan hasi, finantziario falta dela eta. Horregatik eskaria egin diote udalari, adjudikatu gabe dauden etxebizitzaren prezioa igotzeko. Udalak onartu egin du eskaria azken osoko bilkuran. Hori bai, hilabete bateko epean izena ematen dutenek 2007an ezarritako prezioa ordainduko dute.

Hamabi etxebizitzetatik bi udalarentzat dira. Beste hamarretatik bostetan izena eman dute herritarrek. Jesus Inurritak alkateak azaldu duenez, «sustatzaileen eskaria onartzearen arrazoa dagoeneko izena eman dutenak herrian gelditzea da. Gainera, izena

eman nahi duenak, hilabete epean aurreko prezio berdina mantentzen zaio». Inurritak azaldu duenez, «hainbat arazo izan dira azken lau urte hauetan etxebizitzak ez egiteko. Gure asmoa da etxebizitza horiek ahal den azkarren eraikitzea».

Sustatzaileek, Amezan eta Ekolan enpresek, etxebizitzaren prezioa 15.000 eurotan igotzea eskatu dute eta hori onartu da. Lehenengo pausoa etxebizitza tasatu horien inguruko baldintza agiri berria onartzea da, bai batzordean eta gero osoko bilkuran. Prozesu horrek bi hilabete inguru iraungo dituela aurreikusiten dute. Ondoren zabalduko da izena emateko aukera, eta esan bezala, lehenengo hilabetean izena ematen dutenei 2007ko prezioa mantenduko zaie.

Industrialdea

Azken osoko bilkuran 9. Ola Sektoreko birpartzelazio proiektuari hasierako onarpena eman zion udalak. Hilabete epean jende aurrean ikusgai izango da proiektua, eta alegazioak jartzeko aukera izango da.

Batzordeetan hitz egindako zenbait gai azaldu ziren ere bilkuran. Horietako bat aldaketa klimatikoa eta CO2 isurketaren aurkako plana (PAES) izan zen. Plan-gintzaren zirriborroan, alde batetik, udalak bere azpiegiturretan hartu beharreko neurriak zehazten dira: leihoak eta ateak aldatu isolamendu hobetuek izatea, teilatuko isolamendua hobetzea, berogailua aldatzea getermia erabiliz, udaletxearen argiteri berria kontsumo baxukoa izatea eta kanpoko argiteria eta frontoian led teknologia erabiltzea eta udalaren autoa aldatzerakoan elektriko erostea.

Horrez gain, udala adibide izanik, sentsibilizazio kanpaina bideratzea proposatzen da, herritarren ondorengo gaiak sustatzeko: energi beharrak murriztea, hondakinak murriztu eta birziklapena ohiturak hartu, mugikortasun ohiturak, ibilgailu publiko erabiltzea, ura aurrezteko kanpainak eta natura inguruan birlandaketak bultzatu.

Hurrengo udalak errebisatu beharko du plan hori eta bere esku egongo da onartzea.

Eguneko zentroaren ate irekien eguna antolatu dute

Adinekoekin egindako bideoa ikusteko aukera izango da eta ondoren merienda antolatu dute; gaur dira ekitaldiak

I. Garcia Bidegoian

Saiaz gizarte zerbitzuen mankomunitateak bi ekimen antolatu ditu datozen egunetarako. Alde batetik, gaur eguneko zentroaren ate irekiera eguna izango dute. Datorren asterako Bidegoiango Emakume Astea antolatu dute.

Ate irekien egunaren helburua eguneko zentroa herritarrei hurbiltzea da. Bi ekitaldi antolatu dituzte. Alde batetik, Saiaz mankomunitateko adinekoekin egin den bideoa ikusteko aukera izango dute herritarrek. 15:00etan izango da emanaldia. Ondoren, 16:30ak aldera, adinekoentzat merienda antolatu dute. Garraio arazoak dauden etxeetara Saiaz

mankomunitateko furgoneta joaten saiatuko dela azaldu dute gizarte zerbitzuetatik. Horretarako beraikin harremanetan jarri behar da, 943 68 11 28 telefono zenbakian.

Hitzaldia eta filma

Bidegoiango Emakume Astea urtero antolatzen dute. Herrian belaunaldi desberdinetako emakumeak elkartzeko eta hausnarketa egitea du helburu. Bi ekitaldi izango dira, biak datorren astean. Hilaren 30ean, 15:00etan, Arantxa Urretabizkaia idazleak hitzaldia emango du balio anitzeko gelan. *Askatasuna irabazi dugu, libreago gara orain, ez zegoen paradisu-rik iraganen* izena du solasaldia. Ekainaren 2an, ostegunean, *80 egun* filma emango dute, 15:00etan, balio anitzeko gelan. Bi emakume helduen arteko istorioa kontatzen da bertan. Itziar Aizpurua eta Mariasun Pagoaga dira aktoreak. Emanaldiaren ondoren solasaldia izango da.

Eskola Kirolaren inguruko hitzaldia antolatu dute

Luix Mari Zulaika EHUko irakaslea izango da hizlaria eta ekitaldiak datorren astelehenean egingo dute eskolan

I. Garcia Alegia

Itturri Zahar guraso elkarteak eta Eskola Kiroleko Batzordeak hitzaldia antolatu dute datorren astelehenerako, gurasoei zuzen-

duta. *Eskola kirola baliabide hezitzaile gisa* izena du hitzaldia. Luix Mari Zulaika EHUko irakaslea eta pedagogian doktorea izango da hizlaria. Saioa San Juan ikastetxean izango da eta 16:30ean hasiko da.

Antolatzaileek azaldu dutenez, txikiak haurtzaindegi zerbitzua izango da. Interesa dutenek izena eman behar dute eskolan eta horretarako azken eguna gaur da. Izena ematerakoan haurraren adina adierazi behar da.

Iragarki laburrak

ESKAITZA

■ **Klase partikularrik.** Psikopedagogian eta Hezkuntza Berezian tituludunak LHko eta DBH1 eta DBH2ko ikasleei klase partikularrik emango lizkieke. Andoain, Aduna, Villabona, Zizurkil, Asteasun edo inguruetako herrietan. Interesgaituek deitu 669 00 56 71 zenbakira.

SALGAI

■ **Apartamentua.** Jakan apartamentua salgai. Altzariz guztiz hornitua dago. Erdigunean, parkegune handi baten ondoan dago apartamentua. Garajea eta trastelekua ditu. Prezio interesgarria. Interesa dutenek ondorengo telefono zenbakira deitu behar dute: 667 49 25 57.

Ikasturte amaierako jaialdia egingo du bihar Sutarririk

20:30ean merienda antolatu dute nahi dutenentzat eta 22:00etan izango da saioa, kultur etxean

I. Garcia Alegia

Sutarririk dantza taldeak ikasturte amaierako jaialdia egingo du herritarren aurrean, bihar, kultur etxean. 20:30ean merienda antolatu dute nahi duten guztientzat. Gero, 22:00etan, izango da dantza emanaldia. Sarrera doan da eta herritar guztiak gonbidatzen dituzte bertara. Sei talde daude Sutarririk, eta talde bakoitzak bina dantza egingo ditu.

Marta Iraola Sutarririk elkarteak kideak azaldu duenez, ikasturtearen balantze «baikorra» egiten dute. 60 dantzarik hasi zuten ikasturtea eta 53 dantzarik bukatu dute. Sei talde daude, horietako bat helduena.

Sei urtetik aurrera eman daite-



Sutarririk dantza taldeko kideak. HITZA

ke izena Sutarririk, eta datorren urterako taldean sartu nahi dutenek dagoeneko aukera dute horretarako. Kultur etxera joan behar da eta ekainaren bukaera arte dago epea izena emateko.

Iraolak azaltzen duenez, «azken urteetan talde berri bat sortzen da». Adinaren arabera egiten dituzte taldeak. Orain 11 urte

inguru jarri zuten abian taldea, eta iaz jarri zioten Sutarririk izena. Urtean zehar hainbat emanaldi egiten dituzte. Biharko ikasturte amaierako jaialdiaz gain, festetan egiten dituzte saioak; herriko festetan, San Juan bezperan eta Kalebeherako festetan. Horrez gain, Dantzari Txiki Eguna antolatzen dute azaroran.

Artea ogibide

Ione Urain eta Maite Salutregik 'Zipristin' erakusketa egokitu dute Tolosako Aranburu jauregira

Ekainaren 11ra bitarte egongo dira keramika lanak ikusgai

Asier Imaz

Aranburu jauregian keramika erakusketa dago ikusgai, ekainaren 11ra bitarte. Ione Urain eta Maite Salutregik Pott Keramika taldea osatzen dute, eta euren lanak aurki daitezke Aranburun. Alde batetik, *Zipristin* izeneko atala dago; elkarlanean sortutako lanak sartzen dira bertan. Bestetik, artista bakoitzak egindako sorkutzak kokatu dituzte jauregi-ko aretoan.

Ione Urain eta Maite Salutregik Ezkio-Itsason egiten dute lan, keramikarekin. Ogibidea izateaz gain, beraz, arte mundurako sar-

bidea ere badute keramika. Eta horren adierazle Tolosan jarri duten erakusketa da. Aurrez, Donostian eta Urretxun jarri dituzte lanak ikusgai.

Artelanak salgai aurkitzen dira, baina ez dute preziorik. Izan ere, lan bakoitzak bere ingurunea dauka, eta ingurunearen arabera da lana. Horregatik, interesa duenak lehenik eurekin hitz egin beharko luke, non jarri nahi duen azaltzeko.

Ideien mundua, koloreak, mugimendua... keramikan islaturik ikusteko aukera eskaintzen du egun hauetan Tolosako Aranburu jauregiak.



POXPOLIZ

San Frantzisko 21 • TOLOSA • Tel.: 943 11 42 14
poxpolin@poxpolin.com • www.poxpolin.com

LIKIDAZIOA

Berriaren edizio digitalerako DISEINATZAILE-PROGRAMATZAILE bat behar da.


Ezaugarri hauek bete behar ditu: **Erreferentzia: 2011EH-DP**

- Ezinbestekoa da HTML, PHP eta MySQL programazio lengoaiekin eskarmentua izatea.
- XHTML eta CSSrekin maketatzen esperientzia izatea.
- Photoshop eta Flash programak ezagutzea.

Eskaintzen da:

- 12 hilabeteko kontratua (luza daiteke).
- Lanean berehala hastea (ekainean).

Bidali curriculuma gb@berria.info helbide elektronikora, erreferentzia zehazturik, ekainaren 1a baino lehen.





Tolosako Eduardo Mokoroa Udal Musika Eskolako ikaslea. HITZA

Musika Eskolan matrikulatzeko epea hilaren 31n amaituko da

Ikasturte berrirako eskaintza zabala prestatu dute, adin gutzietako herritarrentzat

Asier Imaz Tolosa

Tolosako Eduardo Mokoroa Udal Musika Eskolatik azaldu duteenez, 2011/2012 ikasturteko aurre-matrikula epea maiatzaren 31n,

asteartean, bukatzen da. Informazio gehiago nahi izanez gero, ondorengo telefono zenbakira deitu behar da: 943 65 15 93. Bulegora bertara ere joan daiteke nahi izanez gero, horretarako, honako ordutegia zabaldu dute: asteleheneetik ostiralera 10:00etatik 13:00etarako, hain zuzen ere.

Musika eskolan eskaintza zabala prestatu dute 2011/2012 ikasturterako. Honako ikasgaiak aurkitzen dira aukeran: akordeoia, pianoa, perkusioa, flauta, klari-

nete, oboea, saxofoia, bibolina, biola, biolontxelo, kontrabaxua, baxu elektrikoa, tronpeta, tronboia, tronpa, bonbardino, tuba, txistua eta dultzaina.

Adin guztientzat

Eduardo Mokoroa Udal Musika Eskolan ez dago adin-mugarik, ondorioz, lau urterekin hasi daiteke klaseak hartzen. Helduentzat ere solfeo eta instrumentu-ko ikasketa bereziak ematen direla azaldu dute arduradunek.

Lizarrustitik barrena ibiliko dira larunbatean

Maiatza Gorriaren barruan Alpeen inguruko proiektzioa ikusteko aukera egongo da gaur, 19:00etan

Asier Imaz Tolosa

Sanblasipiko Gazte Asanbladak larunbat indartsu bat antolatu du Maiatza Gorria ekimenaren barruan. Goizean, 09:30ean, Otsabiko lokalean elkartuko dira mendira joateko. Orkatz Goenaga buru dutela, Lizarrustitik barrena hiru orduko ibilaldi lasaia egingo dute. Goenaga biologoa izateaz gain, euskal kondairetan aditua da. Lizarrustin artzain-

tzaz, mitologiak eta ingurunearen azken mendeetako bilakaeraz hitz egingo du.

14:00etarako Tolosara itzuliko dira, bertso bazkaria antolatu baitute ordu horretan, Amaia Agirre eta Ander Lizarralderekin. Izena emateko zerrendak Denak tabernan aurkitzen direla azaldu dute gazte asanbladako ki-deek.

Eguna amaitzeko, Otsabin, Gozo Gozo taldearen emanaldia egongo da, 18:30etik aurrera.

Gaur, hitzaldia 19:00etan

Mendiarekin jarraituz, gaur 19:00etan hitzaldia egongo da Otsabin. Bertan Alpeen inguruko eskalada proiektzioa ikusteko aukera ere egongo da.



Jentilarri Trikuharri hau ikusteko aukera izango dute larunbatean. HITZA



harpidedun izateak badu saria zozketa

1 Otordua

Ñañarri Jatetxean
2 lagunentzako bazkaria edo afaria



Larraitz auzoa • Abaltzisketa • Tel.: 943-65 58 15
Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 51



2 Otordua

Kako Jatetxean
2 lagunentzako bazkaria edo afaria

Herriko plaza, 7 • Berastegi • Tel.: 943-68 30 59
Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 52



3 Otordua

Ostatu Hernialde Jatetxean
2 lagunentzako bazkaria edo afaria



Hernialde • Tel.: 943-65 24 96
Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 53

4 Ile mozketa

Mikel Izagirre
ileapaindegian ile mozketa

MIKEL IZAGIRRE
ileapaindegia
www.lasonet.com/mikel

Gorosabel, 27 behe • Tolosa • Tel.: 943-67 52 49
Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 54



Parte hartzeko deitu edo idatzi: **902-82 02 40 / txokoa@hitza.info** [harpidedunen kodea, izena, herria, eta zeineskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adierariz] Aste honetako astearte, asteazken eta ostegun goizean, nahi duzun orduan. Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.

2=1 kupoa

MOZTU eta erabili zure harpidedun txartelarekin batera*

DENAK TABERNA
Igaralde 4 • Tolosa • Tel.: 943 671 627
2 =1 kupoa ogitartekoetan
Asteleheneetik ostegunera

Ogitartekoak 2=1
batek ordaindu eta bigarrengoak doan

IZEN-ABIZENAK

HARPIDEDUN KODEA

ERABILITAKO EGUNA

ARGITARATZE EGUNA: 2011-05-24
ERABILITZEKO EPEA: hilabete

*Harpidedun bakoitzak kupoi bakarra aurkez dezake, ezin dira metatu.

harpidedunen **TXOKOA hitza** info

Zentzuz elikatu, kontsumitu eta bizitzeko mezua zabalduko dute

Bihar hasiko den Tolosaldeko Aste Berdea aurkeztu dute Amasan; egitarau zabala prestatu dute

Eneritz Maiz

Aste Berdea izeneko sentsibilizazio kanpainarekin bat egin du Tolosaldea. Ekainaren 5ean mundu osoan ospatzen den Ingurumenaren Eguna ospatuko da. Ekitaldien ardatza kontsumo arduratsua bultzatzea izango da. Tolosaldea Garatzen Garapen Agentziak koordinatuz, Tolosaldeko Zabor Mankomunitateak eta eskualdeko udalek antolatuko dute. Aduna, Amezketak, Irura, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkilaren izango dira antolatuta ekitaldiak.

2011ko Aste Berdea, *Zentzuz elikatu, zentzuz kontsumitu: zentzuz bizi* lemapean antolatuko dute. Mugarik Gabeko Albaitariak, SETEM Hego Haizea eta Lur-Lan elkartearen elkarlana izan dute.

Tolosaldeko Aste Berdea aurkezteko, Garbiñe Mendizabal, Tolosaldea Garatzeneko Agenda 21eko koordinatzailea; Pello Zendoia, Amasa-Villabonako zinegotzia; Marimi Ugalde, Irurako alkatea; Xatur Zabala, Amezketako zinegotzia eta Eneko Viñuela, Mugarik Gabeko Albaitariak era-

kundeko kidea izan ziren Amasako plazan.

Ekitaldiak zazpi herritan

Aste Berdeari hasiera Villabonan emango diote bihar XL Town antzeztanarekin. Azken urteetan bezala, Bigarren Eskuko Azoka ere egingo dute. Amezketak eta Anoetan, *Banka etikoa, dirua gizakien zerbitzura* erakusketa izango dute. Iruran, ekainaren



Zabala, Zendoia, Mendizabal, Ugalde eta Viñuela izan ziren Aste Berdea aurkezten atzo, Amasan. E. MAIZ

Iean, Eider Elizegi mendizale eta blogariaren hitzaldia izango da. Mendia, modu oso batean bizitzeko eskatu dion bizimodu aldaketaz eta lortu duen askatasunaz hitz egingo du.

Adunan, ekainaren 2an, *Nola elikatzen dugu mundua?* izeneko

bideo foruma eskainiko dute Herri Eskolan, 17:00etan. Tolosan, bideo forumak, Poliposeidasen eskutik, *El abcdario del cambio* izeneko antzelana ikusteko aukera izango da, Zerkausian. Immigrazioa, emakumea, neoliberalismo ekonomikoa, publikitate,

kontsumo...ditu ardatz. Eskolako Agenda 21en Topaketak ere egingo dituzte.

Zizurkilaren berriz, ekainaren 2an izango den *Nola elikatzen gara?* bideo forumaz gain, Ingurumenaren Egunean, ibilaldi herrikoia antolatuko dute.

↓ Tolosaldeko Aste Berdea: 'Zentzuz elikatu, zentzuz kontsumitu eta zentzuz bizi'

ADUNA

EKAINAK 2, OSTEGUNA

■ **Nola elikatzen dugu mundua?** Bideo foruma izango da 17:00etan Herri Eskolan.

AMEZKETAK

APIRILAK 30etik EKAINAK 2ra

■ **Erakusketa. Banka etikoa, dirua gizakien zerbitzura**, 18:00etatik aurrera Kultur Etxean. SETEM Hego Haizearen laguntzarekin.

EKAINAK 1, ASTEAZKENA

■ **Nosotros alimentamos el mundo.** Bideo foruma izango da 19:00etan Kultur Etxean.

ANOETA

EKAINA 6tik 11ra

■ **Erakusketa. Banka etikoa, di-**

rua gizakien zerbitzura, kiroldegian. Astelehenean ostiralera, 09:00etatik 12:30era eta 15:00etatik 21:30era. Larunbatean, 09:00etatik 10:00etara.

IRURA

EKAINAK 1, ASTEAZKENA

■ **Mendia, txikiaren handitasuna.** Eider Elizegi mendizale eta blogariaren eskutik hitzaldia; 19:30ean, Ikastolako Areto Nagusian.

TOLOSA

MAIATZAK 30, ASTELEHENA

■ **Elikadura subironotasuna Euskal Herrian.** Bideo foruma izango da 19:30ean Tolosako Kultur Etxean izango da.

EKAINAK 2, OSTEGUNA

■ **El pan nuestro de cada día.**

Tolosako zine-kluba, Leidor Zineman, ohiko ordutegian.

EKAINAK 4, LARUNBATA

■ **El abcdario del cambio.** Poliposeidasen eskutik antzezlana, 22:00etan Zerkausian.

EKAINAK 8, ASTEAZKENA

■ **Eskolako Agenda 21en III. Topaketak.** 09:30ean, Tolosako Musika Eskolan izango da.

EKAINAK 16, OSTEGUNA

■ **Nola elikatzen dugu mundua?** Bideo foruma izango da 10:00etan Tolosako Kultur Etxean.

AMASA-VILLABONA

MAIATZAK 27, BIHAR

■ **XL Town.** Antzezlana Pikor Taldearen eskutik 22:30ean Gurea Zineman. Erosten dugun arroparen atzean dagoen errealitatea erakusten dute.

EKAINAK 3, OSTIRALA

■ Bigarren eskuko azoka.

17:30etik 21:00etara, Berdura Plazan. Gauzen berrerabilpena bultzatu nahi da. Lur Lan Base-ritarren Elkarteak produktua dastatzeko aukera izango da.

EKAINAK 4, LARUNBATA

■ **Lore Banaketa.** Atari Bizi Lehiaketaren baitan egingo dute 11:30ean Berdura Plazan.

ZIZURKIL

EKAINAK 2, OSTEGUNA

■ **Nola elikatzen gara?** Bideo foruma Atxulondo Kultur Etxean, 19:30ean izango da.

EKAINAK 5, IGANDEA

■ **Ingurumenaren Munduko Eguna.** Mendi ibilaldi herrikoia egingo dute 09:00etan abiatuta. 12 kilometroko ibilbidea prestatu dute.

Hilberriak

JOSE MARI CORTAJARENA ANZA

(Isabel Blancoren alarguna)

Herenegun hil zen, 70 urte zituela.
- Golan bego -



Seme-alabak: Iñigo, Iker, Mária, eta Aitor; anai-arrebak: Josetxo (†) eta M^h Sánchez, Filo eta Emilio Monzón (†), Maru eta Miguel Inza, Manolo eta M^h Carmen Ibañez, Anxón eta Karmele Arratibel, Boni eta Avelina Zubizarreta; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren arimaren alde otobit bat esaktzen dizueta eta arren etor zaitzela GAUR OSTEGUNA, aratsaldeko SEIRETAN, Atobako FRANTZISKOTARREN eliz-parrokian egingo den hiletara. Aldez aurretik mila esker.

Oharra: Gorpu bella Errekaldeko FUNERARIA VASCONGADAREN Tanatorioan dago, ostegun goizeko 10:45ak arte.

DONOSTIA, 2011ko maiatzaren 26an

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info

HILETAREN BALIOA
Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsonen dugu pertsona bakotzak bere neumiko hileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Bereskurazuzena da galdu duzuna.
baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com

Uda 2011 kanpainaren barruan kirola egiteko aukera zabala izango da

Adin guztietako pertsonak izango dute aukera kiroldegiko ikastaro hauetan izena emateko

M. Ugartemendia Ibarra

Ibarrako Belabietako kiroldegia Tolosako Udalarekin batera Uda 2011ko ekimena antolatuko du. Horietako ekimena asko Ibarra bertan izango dira: kirol ludoteka, cycling-a, patinaia, hirugarren adinekoentzat gimnastika, pilates, fitness, bosu-gap eta yoga.

Haurrek kirol ludoteka, cycling-a eta patinaia egin ahal izango dituzte. Ikastaroak uztailan zehar, goizetan izango dira. Eta, 50,33 eta 22 euroko kostua izango dute, hurrenez hurren.

Hirugarren adinekoek gimnasia ikastaroan izena eman ahal izango dute. Ikastaro hau astearte eta ostegunetan egingo da, 09:00etan; eta, dohainik izango da.

Gainerako ikastaro guztietan parte hartzeko aukera izango dute 16 urtetik gorako pertsonak. Ikastaro guztiak astean bi egunetan izango dira, yoga izan ezik; honako hau, astelehenetan soilik izango baita. Goizez nahiz arratsaldean egingo dituzte ikastaroak. Kostuari dagokionez, bazkide direnek 21 euro ordaindu beharko dituzte, eta bazkide ez direnek 29 euro. Informazio gehiago eskuratu nahi duenak, Belabietako kiroldegian galde dezake.

Jon Rekondo finalerako txartela lortzen saiatuko da Leitzan

Maier Ugartemendia Leitza

Hiru leitzar egon daitezke banakako aizkora txapelketako finalean. Mikel Zabaletak eta Eneko Saralegik jada lortu dute finalerako txartela. Hirugarrena irabazten saiatuko da, igandean, Jon Rekondo.

Urrezko mailako finalerdia jokatuko da igande honetan Leitzako Amazabal pilotalekuan, 12:00etan. Bigarren kanporaketan ariko da Rekondo, Atutxa II.aren aurka. Irabazten badu Azpeitiako Izarraitzen, ekainean izango den finalean egongo da.

Hilaren amaierarekin batera iritsi dira Txaramako jaiak

Bihar suziriarekin eta plazan egingo duten barrikotearekin emango diete hasiera jaiak Txaramarrek

M. Ugartemendia Txarama

Maiatzaren amaiera iristearrekin batera, urtero bezala, Txaramako jaiak ere iritsi dira. Festak bihar hasi eta etzi amaituko dira. 21:00etan emango diete festei hasiera suziriarekin. Ondoren, barrikotea egingo dute plazan.

Larunbatean, egun guztian zehar egongo dira ekitaldiak. Eguerdik aldean, toka txapelketa eta pintxo lehiaketa egingo dituzte. Parte hartzaile bakoitzak pintxo ezberdinak aurkeztu beharko ditu, eta gero epaimahaiek pintxorik goxoena zeintzuk diren erabakiko dute. Arratsaldean, herriko dantzarien eta ume jolasen txanda izango da. Ikuskizunaren ondoren, berriz, herritar guztiak afaltzera joango dira.

Txaramako jai batzordeak herritar guztiak animatu nahi ditu festetan parte hartzera eta ondo pasatzera.



Aurten ere pintxorik goxoena aukeratu dituzte pintxo lehiaketan. R. CALVO

↓ Egitaraua

MAIATZAK 27, BIHAR

■ **21:00.** Festei hasiera emateko suziria.
■ **Ondoren.** Barrikotea egingo dute plazan.

MAIATZAK 28, ETZI

■ **12:00.** Toka txapelketa.

■ **13:30.** Pintxo lehiaketa.
■ **16:00.** Herriko dantzariak dantza emanaldia eskainiko dute, plazan.
■ **17:00.** Ume jolasak eta txoko-ladada.
■ **Ondoren.** Ikuskizuna zinean.
■ **21:00.** Herri afaria.
■ **Ondoren.** Bertsolariak eta tritilariak.

Kultur Aroaren erdia burututa, ekitaldiz betetako asteburua dute aurretik leitzarrek

Gaur Euskal Herriko inauteriei buruzko hitzaldi interesgarria emango du Aitzpea Leizaola antropologoak

Maier Ugartemendia Leitza

Kultur Aroa aurreko astean hasi bazen ere, aste honetan oraindik hainbat ekitaldi izango dira, eta horietako asko asteburuan izan-

go dira, gainera; Gazte eguna eta artisau azoka izango baitira.

Gaur, hitzaldi interesgarri bat entzun ahal izanen dute leitzarrek. Aitzpea Leizaolak Euskal Herriko inauteriei buruzko hitzaldi bat emango du. Bihar, berriz, Kerobia talde irundarrak kontzertua eskainiko du.

Larunbatean, gazteen txanda izango da, beraien eguna ospatuko baitute. 14:00etan gazte bazkaria egingo dute. Arratsaldean maiatzean zehar batukada taile-

rretan prestatutakoa eta ikasitako jarriko dute praktikan. Ondoren, Kukutzako Zirko Eskolako Koblakari ikuskizuna izango da herriko plazan. Jarraian, batukada segida emango diete gauera arte. Gauean, Idroh eta Vomito taldeen kontzertuak izango dituzte gaztetxean. Idroh, Numetal es-

tiloa duen, Leitzako talde berri bat da; beraien lehengo kontzertua izango da. Vomito 80-90ko hamarkadako talde gipuzkoarra da. Parranda goizaldera arte luzatuko da.

Igandean, berriz, egun guztian zehar artisau azoka egongo da ikusgai herriko plazan.

↓ Egitaraua

MAIATZAK 26, GAUR

■ **20:00.** *Inauteriak Euskal Herrian: tradizioaren forma berriak.* Aitzpea Leizaola, antropologoa eta EHUKo irakaslearen hitzaldia, Aurran.

MAIATZAK 27, BIHAR

■ **20:00.** Elkarretaratzea, Lopenean.
■ **23:00.** Kerobia taldearen kontzertua, zinean.

MAIATZAK 28, ETZI

GAZTEEN EGUNA

■ **14:00.** Bazkaria.

■ **18:00.** Batukada tailerreko kideekin kalejira egingo dute.
■ **19:00.** Koblakari taldeak malabare ikuskizuna eskainiko du, plazan.
■ **20:00.** Batukada taldearen saio berri bat.
■ **21:00.** Luntxa, gaztetxean.
■ **23:00.** Idroh eta Vomito taldeen kontzertua izanen da, gaztetxean.

MAIATZAK 29, IGANDEA

■ **09:00.** Plazatik abiatuta, gaiteroen eskutik diana.
■ **11:00etatik aurrera.** XXXIV. artisau azoka ikusgai egonen da plazan, egun guztian zehar.



Ostiralean, kamisetak margotzen ikasi zuten herriko haurrek. M. UGARTEMENDIA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: www.tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketza, Anoeta, Areso, Belauntza,
Berastegi, Elduain, Hernialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Publierreportajea

Urnietako Salesiarrak etorkizunari begira

Ikastetxeak hezkuntza osoa bultzatzen du; ekainaren 1ean hasiko da aurrematrikulazioa egiteko epea

↓ **Datuak**

LANBIDE HEZIKETAKO IKASKETEN ATE IREKIAK

- **Noiz.** Etzi, maiatzak 28, larunbata.
- **Ordutegia.** 10:00etatik 13:00etara.
- **Nola iritsi.** Andoaindik,

N-1 errepidetik Gasteiz aldetik iritsita; edo Hernanitik, N-1 errepidetik Donostiatik edo Frantzia aldetik iritsita.
■ **Zozketa.** Gerturatzaren diren guztien artean ordenagailu eramangarri bat zozketatuko dute ikastetxeko arduradunek.

AURREMATRIKULA EPEA

- **Noiz.** Ekainaren 1etik 10era.
- **Telefonoa.** 943 55 17 89.
- **Webgunea.** www.salesianosurnieta.com.

R.C. Urnieta

Urnietako Salesiarrak ikastetxean hezkuntza osoa bermatzen dute. Bertan DBH ikasketak, batxilergoa, eta erdi mailako zein goi mailako ikasketak eskaintzen dituzte. Azken urteetan 300 bat ikasle daude ikastetxe osoan. Ez da oso ikastetxe handia, baina horrek ziklo bakoitzean 15 bat gazte egotea ahalbidetzen du, «oso kopuru egokia» dena arduradunen hitzetan, eskolak emateko.

Erdi mailako aukeren artean, bi ikasketa eskaintzen dituzte: **Mantenimendu Elektromekani-koa (MEM)**, eta **Instalazio Elektriko eta Automatikoak (IEA)**, azken honekin, gainera, instalatzaile karneta lortzeko aukera dago. MEMari dagokionez, ikasleek ohiko makineria erabiliz edozein piezaren mekanizatua egiten, zenbaki kontrola, soldaketa... ikasteko aukera dute. Era berean, zirkuitu elektrikoak, pneumatikoak eta hidraulikoak bere barne hartzen dituen edozein makinararen **mantentze lanak** egiten irakasten dute.

IEAren barruan, **edozein instalakuntza elektriko** martxan jarri eta hauen mantentze lanak egiten ikasten dute ikasleek: segurtasun sistemak, eguzki panelak, soinua, bideoa, kamerak, domotika...

Goi mailako ikasketak

Goi mailako ikasketei dagokionez, lau adar eskaintzen dituzte Urnietako Salesiarrak ikastetxean, horietako bat berria delarik: **Sistema Elektriko eta Automatizatuena (SEA)**. Honek ere instalatzaile karneta lortzea ahalbidetzen du. SEAren barruan edozein eraikinetan hainbat motako instalazioak diseinatu, martxan jarri, eta hauen mantentze lanak egiten ikasten dute ikasleek: kamerak, alarmak, antenak, soinua, eguzki panelak, bideoa, erai-kin adimendunetarako sistemak...

Salesianos Urnietako ikastetxeko sarrera. R.CALVO



SR eta SEA ikasketekin batera, grafikagintzako DP eta PR ikasketak burutzen dituzte Urnietan. HITZA

Bestetik, **Erregulazioe ta Kontrol Sistema Automatikoekin (SR)** ikasketak ere eskaintzen dituzte. Zirkuitu elektriko, pneumatiko,

eta hidraulikoez gain, robotika eta sistema informatikoak bere barne hartzen dituzten zirkuitu elektrikoekin diseinua, martxan

jartzea eta mantentze lanak irakasten dituzte.

Goi mailako ikasketak beste bi zikloek grafikagintzarekin

dute zerikusia, eta biak osagarriak dira.

Diseinu eta Argitalpen Produktzioan (DP) sormena lantzen dute, eta ikasleek logotipoak, egunkariak, aldizkariak, liburuak... diseinatzeko ikasten dute.

Grafikagintzaren Produktzioa (DP) da beste adarra, eta honakoan aurretik diseinatutakoa inprimatzeko ikasten dute gazteek. Elastikoen edo edozein motako paper eta ehunen **serigrafia** ere egiten dute, hau delarik aurtengo beste berrikuntzetako bat.

Luis Enrique Gallego marketing arduradunak azaldu duenez, grafikagintzan ikasitakoak praktikan jartzeko aukera ezin hobea dute ikastetxean, izan ere, bertan inprenta txiki bat dute, eta beraz, diseinatzen dutena inprimatzeko modua ere badute. «Dena egiten dugu; argazkiak atera, diseinatu, inprimatu... Ikasketen berri emateko 8.000 triptiko ere atera ditugu, eta hau oso interesgarria da, ikasleek euren lana kalean ikusten dutelako, ez teoria hutsean. Urtean bi aldizkari ere egiten ditugu, eta oraintxe bigarrenagoa bukatzen ari gara».

Ikastetxe herrikoa

Gallegok Urnietako Salesiarrak ikastetxe herrikoa dela nabarmendu du: «Gure berezitasuna ikasleekin dugun harremanean datza, bai eskoletan eta baita patioan ere. Gure artean giro ona dugu, bizia, baina irakasleen eta ikasleen papera nahastu gabe, noski. Sustatzen ditugun baloreak ere oso garrantzitsuak dira: elkartasuna lantzen dugu, hurbiltasuna, bizi poza... Etorkizunera begira gaude, hori ere oso garrantzitsua da».

Ikastetxean aurrematrikula egiteko epea ekainaren 1ean hasi eta 10ean bukatuko da. Lehenago, hala ere, larunbat honetan bertan, lanbide heziketako ate irekien jardunaldia egingo dute 10:00etatik 13:00etara. Joaten diren guztien artean ordenagailu eramangarri bat zozketatuko dutela ere azaldu dute arduradunek. Informazio gehiago eskuratu nahi duenak 943 55 17 89 telefono zenbakira deituta, edota www.salesianosurnieta.com webgunea sartuta eskuratu ahal izango du.